



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko otsailaren 15a

32. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Atarrabiako Udalari buruzko 2015eko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Atarrabiako Udalari buruzko 2015eko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 23an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Atarrabiako Udalari buruzko 2015eko fiskalizazio txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Atarrabiako Udalari buruzko 2015eko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- | | |
|--|--|
| <p>I. Sarrera (3. or.).</p> <p>II. 2015eko kontu orokorrari buruzko iritzia (5. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">II.1. Auditoriaren finantzarioko iritzia (6. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">II.2. Legezketasuna betetzeari buruzko iritzia (6. or.).</p> <p>III. Udalaren 2015eko kontu orokorraren laburpena (7. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">III.1. 2015eko aurrekontuaren betetzeari buruzko egoeraorria (7. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">III.2. 2015eko aurrekontu-emaizta (8. or.).</p> | <p style="padding-left: 20px;">III.3. Diruzaintza-gerakina 2015eko abenduaren 31n (8. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">III.4. 2015eko abenduaren 31ko balantze-egoera (9. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">III.5. Galeren eta irabazien kontu bateratua 2015ean (9. or.).</p> <p>IV. Oharpenak, iritzian eraginik ez dutenak, eta gomendioak (11. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.1. Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2015eko abenduaren 31n (11. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.2. Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea (14 or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.3 Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako aholkuak betetzea (15 or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.4. Alderdi orokorrak (15. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.5. Langileak (15. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.6. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (16. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.7 Transferentzien ondoriozko gastuak (17. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.8 Inbertsioak (17. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.9 Aurrekontuko diru-sarrerak (18. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.10. Hirigintza (19. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">IV.11 Kirol Martiket SL Sozietatea (19. or.).</p> <p>Eranskina. Udalaren 2015eko kontu orokorraren oroitidazkia.</p> <p>(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Agora aplikazioan eta honako web helbidean:
www.cfnavarra.es/camara.comptos).</p> |
|--|--|

I. SARRERA

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2016rako jarduketa-programari jarraituz, Atarrabiako Udalaren 2015eko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditu. Honako hauek osatuta daude kontu horiek: aurrekontuko likidazioaren egoera-orria, balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarezkoen kontua eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion oroitidazki ekonomikoa.

Urteko kontuen finantza-auditoriarekin batera, legezketasuna betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzi bat eman ahal izateko: ea Udalak ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2015eko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Atarrabiako Udalarari 2015eko ekitaldian aplikatzekoak zaion arau-esparrua, funtsean, honako hauek osatuta dago: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna eta aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren arloko araudia ere.

Atarrabiako udalerriak 1,1 km² dauzka, eta 2015eko urtarrilaren 1ean 10.265 biztanle ditu.

2015eko ekitaldia ixtean, Udalaren funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak, 2015-12-31n
Udala	7.840.060	8.281.303	104
Guztira	7.840.060	8.281.303	104

Atarrabiako Udalak ez du erakunde autonomorik. 2015eko maiatzean, behin betiko onetsi zen Kirol Martiket 2015 SL sozietate publikoa sortzea, bai eta Udalaren kirol instalazioen kudeaketa eta kirol-jarduerak tokiko merkataritza-sozietate baten bitartez kudeatzeko modua ere. Enpresa 2015eko urrian hasi zen kirol instalazioak kudeatzen, behin enpresa esleipendunarekiko errentamendu-kontratua amaituta.

Udala Iruñerriko Mankomunitatean sarturik dago, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak, eskualdeko hiri garraiokoak eta ibai parkearen kudeaketari dagozkionak. Mankomunitate horretako kide izatearen ondoriozko gastuak 161.144 eurokoak izan dira guztira 2015ean.

Horrez gain, Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Eskualdeko Bulegoan eta Nafarroako Udal Informatikaren Elkartean (ANIMSA) parte hartzen du.

2010eko irailean, Atarrabiako eta Burlatako udalek Hilarión Eslava Musika Eskolako Partzuegoaren estatutuak onetsi zituzten. Atarrabiako Udalak eskola horren kudeaketan parte hartu du 2015ean, 126.900 euroko ekarpenarekin.

Laburbilduz, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taulan ageri direnak dira:

Udal zerbitzuak	Udala	Mankomunitatea Partzuergoa	Kontratua Zerbitzuak	Enpresa publikoa
Zerbitzu administratibo orokorrak	X			
Oinarrizko gizarte-zerbitzua	X			
Etkez etxeko laguntza-zerbitzua	X			
0-3 urteko haur-eskolak	X			
Musika Eskola		X		
Hirigintza			X	
Lorategiak	X			
Hiri-hondakinak		X		
Uraren ziklo integrala		X		
Garraio publikoa		X		
Ibai parkea		X		
Liburutegia-ludoteka	X			
Kaleen eta bideen mantentzea	X			
Kirolak (instalazioen kudeaketa)				X
Kirol-jardueren kudeaketa	X			
Kultura			X	
Gazteria			X	
Babestutako enplegu soziala	X			
Diru-bilketa exekutiboa			X	
Polizia	X			
Argiteria publikoa	X			
Euskara	X			
Berdintasuna	X			

Entitatearen aurrekontua 2015eko apirilaren 29an onetsi zuen Udalaren Osoko Bilkurak.

Txostena lau ataletan dago banatuta, sarrera hau barne. Bigarren atalean, Udalaren 2015eko kontu orokorrari buruz daukagun iritzia ematen dugu, eta hirugarrenean Udalaren egoera-orri garrantzitsuenen laburpena jaso dugu. Azkenik, laugarrenean, gure iritzian eraginik ez duten alderdiei buruzko oharra jaso ditugu (Udalaren egoera ekonomiko eta finantzarioa, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea eta alderdi orokorrak), bai eta Udalaren antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun arlokako iruzkin, ondorio eta gomendioak ere.

Halaber, eranskin bat gehitu da Udalak 2015eko ekitaldiko kontu orokorreari buruz eginiko oroitidazkiarekin.

Jarduketa honen emaitzak Udaleko egungo alkateari azaldu zitzaizkion, bai eta 2015era arte kargu horretan aritutakoari, kasua bada egokitzat jotzen zituzten alegazioak aurkezteko, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legeko 11.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. Jarritako epea iraganda, ez dugu alegaziorik jaso.

Lan hau egitean emandako laguntza eskertzen diegu Atarrabiako Udaleko eta Kirol Martiket 2015 SL enpresa publikoko langileei.

II. 2015eko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA

Atarrabiako Udalaren 2015eko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu dugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako hirugarren atalean.

Udalaren erantzukizuna

Kontu-hartzaitza da kontu orokorra osatzeko ardua duena. Kontuak halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzeptua, ezarpena eta mantentzea.

2016ko ekainaren 28ko Osoko Bilkurak 2015eko kontuak onetsi zituen.

Udalak, urteko kontuak egiteko eta aurkezteko erantzukizunaz gainera, bermatu beharko du urteko kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontrolen sistemak ezarri beharko ditu.

Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako kontu orokorren fidagarritasunari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezketasunari buruz.

Horretarako, erantzukizun hori bete dugu kanpo kontrolen erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek exijitzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburu honekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio honek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatekoei eta kontu orokorretan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezketasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezketasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak kontu orokorrak egin dituzan garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta kontu orokorren aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure fiskalizazio-iritzia emateko.

Finantzen eta legezketasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren emaitzatik honako iritzi hau erortzen da.

II.1. AUDITORIAREN FINANTZARIOKO IRITZIA

Iritziaren oinarria, salbuespen batekin

Ondasunen inbentarioa 1995ekoa da, oraindik eguneratu gabe dago; hartara, ezin izan da egiaztatu ibilgetuaren kontabilitate-saldoaren arrazoizkotasuna; saldo horrek 35,9 milioi euro gutxiago ditu 2015eko abenduaren 31ko balantzean.

Iritzia

Gure iritzian, "Iritziaren oinarria, salbuespenarekin" lerrokadan azaldutako egitateen balizko eraginengatik ez bada, erantsitako kontu orokorrek irudi zehatza erakusten dute alderdi esanguratsu guztietan, ondareari, gastuen eta diru-sarrereren aurrekontuaren likidazioari eta Udalaren 2015eko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez Halaber, emaitza ekonomiko eta aurrekontukoak islatzen dituzte, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkionak, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

II.2. LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.

III. UDALAREN 2015eko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren azaltzen dira 2015eko kontabilitatearen egoera-orri garrantzitsuenak.

III.1. 2015eko AURREKONTUAREN BETETZEARI BURUZKO EGOERAORRIA**Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera**

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Betetakoa (%)	Ordainketak	Ordainketa (%)	Ordaintzeko dagoena
1. Langile-gastuak	4.596.012		4.596.012	4.513.563	98	4.449.423	99	64.140
2. Ondasun arrunt eta zerbitzuen gastuak	1.964.111	60.293	2.024.404	1.913.688	95	1.675.894	88	237.794
3. Gastu finantzarioak	59.693	-2.000	57.693	48.225	84	48.225	100	0
4. Transferentzia arruntak	617.774	348.493	966.266	537.624	56	402.099	75	135.525
6. Inbertsio errealak	188.908	986.484	1.175.393	403.403	34	340.852	85	62.551
7. Kapital-transferentziak	11.932	0	11.932	11.932	100	0	0	11.932
8. Finantza-aktiboak	0	3.300	3.300	3.300	100	3.300	100	0
9. Finantza-pasiboak	407.400	2.000	409.400	408.324	100	408.324	100	0
Guztira	7.845.830	1.398.570	9.244.400	7.840.060	85	7.328.117	93	511.942

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Hasierako+ behin betikoa	Eskubide aitortuak.	Betetakoa (%)	Kobrantzak	% kobrantza	Kobrantzeko dagoena
1. Zuzeneko zergak	2.599.959	0	2.599.959	2.877.208	111	2.563.673	89	313.535
2. Zeharkako zergak	70.000	0	70.000	49.738	71	48.328	97	1.410
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	1.127.644	328.370	1.456.014	1.148.847	79	1.103.620	96	45.227
4. Transferentzia arruntak	3.949.241	72.723	4.021.964	4.053.963	101	3.833.179	95	220.784
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	65.602	0	65.602	107.988	165	6.023	6	101.965
6. Inbertsio errealak besterentzea	0	0	0	0	0	0	0	0
7. Kapital-transferentziak	33.384	0	33.384	43.559	130	38.881	89	4.678
8. Finantza-aktiboak	0	320.677	320.677	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	0	676.800	676.800	0	0	0	0	0
Guztira	7.845.830	1.398.570	9.244.400	8.281.303	90	7.593.704	92	687.599

III.2. 2015eko AURREKONTU-EMAITZA

Kontzeptua	2014	2015
+ Aitortutako eskubideak	8.237.062	8.281.303
- Aitortutako betebeharrak	7.347.571	7.840.060
Aurrekontu-emaiza	889.491	441.243
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	123.225	0
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	0	16.646
+ Diruzaintza-gerakinarekin txertaketa bidez finantzatutako gastuak	37.056	201.130
+ Ekitaldiko diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak	0	0
Aurrekontu-emaiza doitua	803.322	659.018

III.3. DIRUZAINZA-GERAKINA 2015eko ABENDUAREN31n

Kontzeptua	2014	2015
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	1.069.572	1.024.835
(+) Diru-sarrerak: Aurtengo ekitaldia	884.262	687.600
(+) Diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak	1.192.538	1.666.313
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	85.942	74.364
(+) Gastuen itzulketak	9.928	1.348
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	65.384	66.453
(-) Bilketa zaileko eskubideak	1.037.715	1.338.337
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	868.619	915.628
(+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	485.921	511.944
(+) Gastuen aurrekontua: itxitako ekitaldiak	151.266	139.537
(+) Diru-sarreraren itzulketak	1.372	1.372
(-) Aplikatzeko dauden gastuak	4.729	4.729
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	234.788	267.505
(+) Diruzaintzako funts likidoak	766.673	1.005.335
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	0	0
Diruzaintza-gerakina, guztira	967.627	1.114.541
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	18.225	0
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	141.275	47.093
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	808.127	1.067.448

III.4. 2015eko ABENDUAREN 31ko BALANTZE-EGOERA

Aktiboa

Deskribapena	2014	2015
A. Ibilgetua	35.558.230	35.964.934
1. Ibilgetu materiala	26.847.290	27.034.738
2. Ibilgetu ez-materiala	1.355.111	1.386.166
3. Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	7.327.784	7.512.685
4. Herri-ondasunak	1.558	1.578
5. Finantza-ibilgetua	26.468	29.768
C. Zirkulatzaila	2.946.236	3.441.852
8. Zordunak	2.172.671	2.429.625
9. Finantza-kontuak	773.565	1.012.227
10. Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (galera)	0	0
Aktiboa, guztira	38.504.466	39.406.786

Pasiboa

Deskribapena	2014	2015
A. Funts berekiak	34.404.393	35.666.958
1. Ondarea eta erreserbak	17.614.760	18.893.065
2. Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	1.278.058	1.218.759
3. Kapitaleko diru-laguntzak	15.511.576	15.555.134
C. Epe luzeko hartzekodunak	3.161.341	2.753.017
4. Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	3.161.341	2.753.017
D. Epe laburreko hartzekodunak	938.732	986.811
5. Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	873.348	920.358
6. Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzak	65.384	66.453
Pasiboa, guztira	38.504.467	39.406.786

III.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA 2015EAN

Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor	2014	2015	Hartzeko	2014	2015
Deskribapena			Deskribapena		
3 Hasierako izakinak			3 Amaierako erosketak		
39 Izakinen balio-galtzeen hornidura			39 Izakinen balio-galtzeen hornidura		
60 Erosketak			70 Salmentak	474.211	467.216
61 Langile-gastuak	4.398.934	4.516.531	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	509.437	747.694
62 Finantza-gastuak	68.059	48.225	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	1.949.945	1.971.697
63 Tributuak	0	0	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	511.468	511.302
64 Lanak, zuzkidurak eta kanpoko zerbitzuak	1.819.552	1.910.721			
65 Gizarte prestazioak	0	0	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0
66 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0	76 Transferentzia arruntak	3.943.852	4.053.963
67 Transferentzia arruntak	542.366	537.624	77 Kapitalaren gaineko zergak	669.176	443.948
68 Kapital-transferentziak	14.694	11.932	78 Bestelako diru-sarrerak	47.573	41.925
69 Amortizaziorako eta hornikuntzarako zuzkidurak	0	0	79 Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak	0	0
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	1.262.056	1.212.711	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	0
Guztira	8.105.662	8.237.744		8.105.662	8.237.744

Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2014	2015	Deskribapena	2014	2015
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	0	80 Ekitaldiko emaitza arruntak (Saldo hartzekoduna)	1.262.056	1.212.711
82 Ohiz kanpoko emaitzak (Saldo zorduna)	0	1.443	82 Ohiz kanpoko emaitzak (Saldo hartzekoduna)	0	0
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)	0	0	83 Balore-zorroaren emaitzak (Saldo hartzekoduna)	0	0
84 Itxitako aurrekontuetako esku-bide eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna)	0	0	84 Itxitako aurrekontuetako esku-bide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)	16.003	7.490
89 Mozkin garbia, guztira (Saldo hartzekoduna)	1.278.058	1.218.759	89 Galera garbia, guztira (Saldo zorduna)	0	0
Guztira	1.278.058	1.220.202	Guztira	1.278.058	1.220.202

IV. OHARPENAK, IRITZIAN ERAGINIK EZ DUTENAK, ETA GOMENDIOAK

Ondoren, azterketa labur bat egiten dugu Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioari buruz, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzeari buruz eta aurreko ekitaldietako gomendioen jarraipenari buruz; gainera, honako hauek jaso ditugu: kudeaketa arlo garrantzitsu bakoitzari buruzko iruzkin nagusiak eta, Ganberaren iritziz, Udalak aintzat hartu beharko lituzkeen gomendio nagusiak, antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetze aldera.

IV.1. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2015eko ABENDUAREN 31n

Udalaren hasierako aurrekontuak 7,85 milioi euroko gastu eta diru-sarrerak dauzka; zenbateko hori 1,4 milioi euro handitu da aurrekontu-aldaketan bitartez. Horrenbestez, behin betiko aurreikuspenak 9,24 milioikoak dira. Aldaketa hauek, funtsean, inbertsioen kapituluan dute eragina.

Aitortutako betebeharrak 7,84 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 85eko betetze-maila izan dute.

Aitortutako eskubideek 8,28 milioi egiten dute, ehuneko 90eko betetze-mailarekin; kapitulu gehienetan, ehuneko 100 baino gehiago likidatu da, EIOZari eta tasei dagokienean izan ezik; izan ere, horiek direla-eta guztizko ehunekoa beherago dago.

Izaerari begiratuta, gastuen ehuneko 90 eta diru-sarreraren ehuneko 99 arruntak dira.

Taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu diren Udalak gastatutako 100 eurotik bakoitza:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantza iturria	Zenbatekoa
Langileak	58	Tributu bidezko diru-sarrerak	49
Bestelako gastu arruntak	32	Transferentziak	50
Inbertsioak	5	Ondare bidezko diru-sarrerak eta bestelakoak	1
Finantza-zama	5	Zorduntzea	0
	100		100

Hona Udalaren 2015erako aurrekontuaren betetzeari buruzko datu ekonomikoak eta 2014koarekiko alderaketa:

	2014	2015	Aldea (%) 2015/2014
Aitortutako betebeharrak, guztira	7.347.571	7.840.060	7
Likidatutako eskubideak, guztira	8.237.062	8.281.303	1
Gastuen betetzea (%)	90	85	-6
Diru-sarreraren betetzea (%)	100	90	-10
Ordainketak (%)	95	93	-2
Kobratutakoa (%)	89	92	4
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	6.828.912	7.013.100	3
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	6.760.853	6.964.876	3
Kapital-gastuak (6. eta 7. kapituluak)	133.993	415.336	210
Finantza eragiketen gastuak (8 eta 9)	384.666	411.624	7
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	8.105.662	8.237.744	2
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	4.023.708	4.075.793	1
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	26.400	43.559	65
Diru-laguntzen menpekotasunak (%)	48	49	2
Tributu bidezko diru-sarrerak gastu arrunten gainean (%)	59	58	-2
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	1.169.157	852.867	-27
Aurrekontu-emaizta doitua	803.322	659.018	-18
Aurrezki gordina	1.344.809	1.272.869	-5
Finantza-zama (3. eta 9. kapituluak)	452.725	456.549	1
Aurrezki garbia	892.084	816.320	-8
Zorpetze-maila (%)	5,6	5,6	0
Zorpetze-muga (%)	16,6	15,45	-7
Zorpetze-ahalmena (%)	11	9,85	-10
Diruzaintza-gerakina, guztira	967.627	1.114.541	15
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	808.127	1.067.448	32
Zor bizia	3.161.341	2.753.017	-13
Diru-sarrera arrunten gaineko zor bizia (%)	39	33	-15
Zor bizia biztanleko	310	268	-13
Aurrezki gordinaren gaineko zor bizia (%)	235	216	-8

2015ean, Udalak ehuneko 7 gehiago gastatu du; diru-sarrerak, berriz, ehuneko bat handiagoak izan dira.

Gastu arruntetan, berriz, ehuneko 3ko igoera izan da; eta diru-sarrera arruntek, aldiz, ehuneko 2 egin dute gora. Tributu izaerako diru-sarrerak ehuneko 1 igo dira.

Aurrekontu saldo ez-finantzarioak 852.867 euro egiten du.

Aurrekontu-emaizta doitua 659.018 eurokoa da.

2015ean, aurrezki gordina 1,3 milioi eurokoa izan da. Aurrezki garbia 816.320 eurokoa da.

Zorpetze-maila ehuneko 5,6koa da, eta ehuneko 15eko muga du; horregatik, hain zuzen, oraindik ere badu zorpetze berria hartzeko ahalmen ekonomikoa.

Diruzaintzako guztizko gerakina 1,11 milioikoa da, eta ehuneko 15 egin du gora 2014koarekin alderatuta. Gastu orokorretara bideratutakoa 1,07 milioi eurokoa da. Hona hemen azken magnitude horrek azken urteetan izandako bilakaera:

Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Zenbatekoa	-1.326.260	-1.525.987	-1.436.087	-165.628	149.911	808.127	1.067.448

Taulan ikusten dugunez, 2009tik 2015era aldaketa aipagarria gertatu da gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinean, zeren eta -1,3 eurokoa izatetik milioi batekoa (positiboa) izatera iritsi baita.

Epe luzeko zorra 2,75 milioikoa da, eta ehuneko 13 egin du behera 2014koarekin alderatuta; zor hori –biztanle bakoitzeko 268 eurokoa dena, guztira– entitatearen diru-sarrerara arrunten gutzitzaoren ehuneko 33 da. Bada, ehuneko hori gaur egun zorpetze berria hartzea mugatzen duen ehuneko 110eko lege-mugaren azpitik dago.

Atarrabiako Udalaren 2006-2015 aldiko diru-sarreraren eta gastuen bilakaera honako hau izan da:

Diru-sarrerak (aitortutako eskubide garbiak)

Kapitulua	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Zuzeneko zergak	2.699.409	2.347.357	1.974.811	2.379.169	2.365.708	2.442.820	2.416.640	2.689.868	3.064.923	2.877.208
Zeharkako zergak	247.521	165.163	256.483	51.244	121.712	238.939	321.295	164.424	65.665	49.738
Tasak eta prezio publikoak	944.772	902.856	954.002	856.417	856.127	924.334	878.374	982.627	893.120	1.148.847
Transferentzia arruntak	3.698.708	3.819.374	4.138.550	4.279.944	4.271.987	4.086.273	4.042.524	4.031.876	3.943.852	4.053.963
Ondarezko diru-sarrerak	82.604	114.877	98.440	179.867	129.032	133.975	135.860	136.279	138.102	107.988
Kapital-transferentziak	654.132	457.571	1.419.803	4.554.185	2.758.754	563.266	168.872	256.038	26.400	43.559
Finantza-pasiboak	0	600.000	700.000	0	0	0	800.000	95.000	105.000	0
Diru-sarrerak, guztira	8.327.146	8.407.198	9.542.089	12.300.826	10.503.320	8.389.607	8.763.565	8.356.112	8.237.062	8.281.303

Gastuak (aitortutako betebeharrak)

Kapitulua	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Langileak	4.000.762	3.996.864	4.374.125	4.569.994	4.566.293	4.481.340	4.445.875	4.452.204	4.397.939	4.513.563
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	1.840.457	2.201.101	2.336.606	2.325.846	2.128.795	1.972.135	1.918.646	2.033.683	1.820.548	1.913.688
Finantza-gastuak	138.588	169.420	181.450	89.802	59.259	61.958	57.827	77.713	68.059	48.225
Transferentzia arruntak	387.494	465.283	467.363	455.055	465.715	546.706	491.406	505.878	542.366	537.624
Inbertsioak	1.426.949	1.450.891	3.247.700	5.192.326	2.703.764	606.475	469.965	613.644	119.299	403.403
Kapital-transferentziak	0	0	0	64.024	0	98.757	0	0	14.694	11.933
Finantza-aktiboak	0	0	0	0	1.800	0	25.000	361	0	3.300
Finantza-pasiboak	353.891	355.849	318.876	366.810	409.120	438.018	336.162	390.574	384.666	408.324
Gastuak, guztira	8.148.141	8.639.408	10.926.120	13.063.857	10.334.746	8.205.389	7.744.881	8.074.057	7.347.571	7.840.060

Taulako datuetatik ondorioztatzen denez, 2008tik 2010era bitarteko urteetan, inbertsio-prozesu nabarmena gertatzen da, eta urte horretatik aurrera gastu korranteak gutxitzen dira eta inbertsioak nabarmen beheratzen dira.

Diru-sarrerei dagokienez, ikusten da kapital-transferentzietan garrantzia hartzen dutela inbertsio handienak egiten diren urteetan, eta zuzeneko zergek etengabe gora egiten dutela.

2015eko aurrekontu-betetzea txikiagoa da 2006koa baino.

Udalak aurrera eraman duen jardueraren bilakaera honako adierazle hauen alderaketatik ondorioztatzen da (ikus oroitidazkia) 2011tik 2015era:

Adierazlea	2011	2015	Aldea (%), 2015/2011
Zorpetze-ahalmena	% 4,17	% 9,85	% 136
Biztanle bakoitzeko inbertsioa	67 €	40 €	-40%
Gastu arrunta biztanleko	673 €	683 €	% 1
Tributu diru-sarrerak biztanleko	344 €	397 €	% 15

Ikus daitekeen bezala, 2011tik 2015era inbertsioak ehuneko 40 jaitsi dira, gastu arrunta ehuneko bat igo da eta zorpetze-ahalmena, azkenik, nabarmen handitu da.

Azken batean, ikusten da Udalaren adierazle ekonomikoek hobera egin dutela.

IV.2. AURREKONTU-EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA.

- Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren bete-tzea aztertu dugu, haren hiru atal nagusiei dagokienez.

- Aurrekontu-egonkortasunaren araua: emaitzak 650.936 euroko finantzaketa-ahalmena sortu du, ondoren adierazten dugun bezala:

Kontzeptua	2015
Emaitza finantzarioa (1. kapitulutik 7.era)	852.867
SEC dela-eta egindako doikuntza	-198.631
Sozietateei egindako kapital-ekarpena	-3.300
Finantzaketa-ahalmena	650.936

- Gastuaren araua: 2015eko ekitaldiko gastu zenbakarria 127.138 euro txikiagoa da 2014ko ekitaldiko baino; horrenbestez, bete egiten da gastuaren araua:

Kontzeptua	2014	2015
Gastua (1. kapitulutik 7.era)	6.962.905	7.428.436
Aplikatzeko dauden hartzekodunak	4.729	4.729
Interesak	-68.059	-48.225
Funts finalistekin finantzatutako gastuak	-1.260.994	-1.369.705
Beste doikuntza batzuk		-8.632
Ikuspuntu finantzariotik jasagarriak diren inbertsioak		-198.630
Gastu zenbakarria	5.638.581	
BPGaren erreferentziako tasa	% 1,3	
Gastu zenbakarria	5.711.883	
Diru-bilketaren igoera iraunkorrak	223.228	
2015eko gastu zenbakarria	5.935.111	5.807.973

- Finantza-egonkortasunaren araua: Udalaren zorra 2.753.017 eurokoa da, eta diru-sarrera arrunten ehuneko 33 egiten du, araudiak baimentzen duen ehuneko 110etik behera.

- Halaber, Udalak, oro har, betetzen ditu legedia indardunean hornitzaileei ordainketak egiteko ezarritako epeak: 23 eguneko da epea, gaur egun.

IV.3 AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO AHOLKUAK BETE TZEAN.

Oro har, aplikatzen ari dira Kontuen Ganberak azken txostenetan emandako gomendioak. Hartara, aipatu beharra dago txosten ekonomikoa egin dela –txosten honi erantsi zaio–, eta 2016an ondasunen inentarioa egin ahal izan dela.

Txostenean zehar aipatu ditugu oraindik ere ezarri ez direnak edo egindako lanaren ondorioz sortu diren gomendio berriak.

IV.4. ALDERDI OROKORRAK

- Auziak: ebazteko eta erabakia hartzeko zain dago kirol-instalazioen 2005-2015 ekitaldietako errentamendu-zerbitzurako Udalaren eta enpresa esleipendunaren arteko kontratuaren likidazioa. Udalak eta enpresak proposatutako zenbatekoen artean alde handia dagoenez, ezin da likidazioaren zenbateko zehatza kalkulatu.

- Fidantzen eta gordailuen kontzeptuan antzinako saldo batzuk badaude, 103.000 euro egiten dutenak.

- 2015-12-31ko zor bizia 2.753.017 eurokoa zen. Honako hau da datozen urteetarako amortizazio-taula:

Ekitaldia	Amortizazioa	%	Metatutakoa (%)
2016	370.282,78	13	13
2017	359.859,08	13	27
2018-2020	891.104,90	32	59
2021-2025	954.649,03	35	94
gainerakoa	177.121,37	6	100
Guztira	2.753.017,17	100	

Gure gomendioak:

- *Indarrean dagoen araudiak ezartzen dituen epeen barruan onartzea aurrekontuak.*
- *Udalaren kontingentziak oroitidazkian sartzea.*
- *Fidantzen saldo zaharrak aztertu eta erregularizatzea.*

IV.5. LANGILEAK

Langileen gastua 4,51 milioi eurokoa da; hau da, 2015ean sortutako gastu guztien ehuneko 58.

2014ko ekitaldiari dagokionez, aitortutako betebeharrak ehuneko 3 handitu dira, honako xehetasun hauen arabera:

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%)
	2014	2015	
Goi-karguak	112.500	112.573	0
Funtzionarioak	2.505.742	2.537.830	1
Lan-kontratudun langileak	298.474	318.591	7
Gizarte-zamak	1.481.222	1.544.569	4
1. kapitulua, guztira	4.397.938	4.513.563	3

Udalbatzak 2015eko apirilaren 29an onetsi zuen plantilla organikoa (2015eko urriaren 26ko NAO n argitaratu zen), 103 lanposturekin. Horietatik 28 hutsik daude, baina 28 horietatik 27tan langileak daude; hona haien banaketa:

	Lanpostu-kopurua	Aktiboa	Lanpostu hutsak	Betetako lanpostu hutsak
Funtzionarioak	64	56	8	7
Lan-kontratupekoak	38	18	20	20
Izendapen askea	1	1	0	0
Guztira	103	75	28	27

2015eko abenduaren 31n, Udalean 104 pertsonak egiten dute lan guztira, honako alor haue-
tan:

Alorrak	Kopurua
Kabinetea (Giza Baliabideak)	2
Idazkaritza	2
Alor ekonomikoa	4
Herritarrentzako arreta bulegoa	3
Gizarte zerbitzuak	16
Kirola	3
Euskara	1
Mantentze-lanak	1
Kale garbiketa	3
Obrak (lorenzaintza barne)	10
Alguazilak (Udaltzaingoa)	20
Ikastetxe publikoa (atezaintza eta garbiketa)	11
Udal eraikinetako garbiketa eta atezaintza	4
Haur Eskola	24
Guztira	104

Langile-gastuen lagin bat aztertu ondoren, gastu horiek, oro har, ondo kontabilizatuta daudela ondorioztatzen da, eta ordainsariak betetako lanpostuetarako eta erlazio-kategoriarako erabakitakoak direla eta egindako atxikipean zuzenak direla. Egiaztatu da, halaber 2015eko ekitaldian langileen soldata igorarik ez dela izan.

IV.6. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuek 1,91 milioi euro egin dute 2015ean, guztira; kopuru hori ekitaldian aitortutako gastuen ehuneko 24 da. Horiek horrela, ehuneko bost igo da 2014 ekitaldiarekiko.

Kapitulu honi egotzitako kontratazio-espeditante hau berrikusi da (zenbatekoa BEZa gabe):

Deskribapena	Kontrol Kontratua	Prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituzte- nak	Esleipenaren zenbatekoa
		esleipena			
Gizarte etxearen kudeaketa	Laguntza	ilrekia	99.756	2	99.756

Aurreko berrikuspenarekin eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin bat aztertuta, egiaztatu da gastuak fakturekin eta ziurtagiriekin justifikatuta daudela, zuzen kontabilizatu direla eta aplikatzekoa den kontratuei buruzko araudia arrazoiz errespetatu dela.

IV.7 TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Izaera hori duten gastuek 0,54 milioikoak izan dira: 2015ean sortutako gastu guztien ehuneko 7, transferentzia arrunten ehuneko 6,86 eta kapital-transferentzien ehuneko 0,15 egiten dute.

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%)
	2014	2015	2015/2014
Foru Komunitateko Administrazio Orokorriari	1.547	1.486	-4
Mankomunitateei	208.757	161.144	-23
Batasun tradizionaleri eta bekei	6.904	16.613	141
Partzuergoei	35.117	36.650	4
Familiei	50.352	75.706	50
Irabazi-asmorik gabeko erakundeei	126.927	140.655	11
Bestelako transferentzietan	82.763	70.581	-15
Kanporako	30.000	34.789	16
4. Transferentzia arruntak	542.367	537.624	-1
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	14.694	11.933	-19
7. Kapital-transferentziak	14.694	11.933	-19
Guztira	557.061	549.556	-1

2014arekin alderatuz gero, gastu horiek ehuneko 1 jaitsi dira.

Honako hauek dira 2015ean emandako diru-laguntza garrantzitsuenak:

Onuraduna	Zenbatekoa
Mankomunitatea	161.144
Hilarión Eslava Musika Eskola	126.909

Egindako lanaren arabera, nabarmendu nahi dugu Udalak ez duela diru-laguntzei buruzko ordenantza orokorrik, ezta, oro har, diru-laguntzen modalitateetarako ordenantza berezirik; diru-laguntzak, beraz, Alkatetzaren/zinegotzi delegatuaren ebazpen bidez edo hitzarmen bidez arautzen dira.

Diru-laguntzei buruzko ordenantza orokorra edo diru-laguntzen modalitateetarako ordenantza berriazkoak onestea gomendatzen dugu.

IV.8 INBERTSIOAK

2015. urterako behin betiko aurrekontuan aurreikusitako inbertsioen (1,18 milioi euro) ehuneko 34 bete da, eta 403.000 eurora iritsi da; hau da, ekitaldian aitortutako betebeharrak guztien ehuneko 5era.

2014arekin alderatuta, inbertsioek ehuneko 238 –hau da, 284.000 euro– egin dute gora.

Honako hauek izan dira 2015ean egindako inbertsio nagusiak (BEZik gabeko zenbatekoak):

Inbertsioa	Zenbatekoa
Katea aldeko bidegurutzea zolaberritzea	28.266
Lursail bat eskuratzea	94.182
Kiroldegiko estalkia zaharberitzea	20.635
Haur eskolako zurgindegia	21.461

Lursailaren eskuratzea berrikusi da, bai eta zolaberritzea kontratazeko espedientearekin (BE-Zik gabeko zenbatekoak):

Deskribapena	Kontratu-mota	Esleipen-prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Esleipenaren zenbatekoa
Katea aldeko bidegurutzea zolaberritzea	Obrak	Publizitaterik gabe negoziatua	28.618	3	24.644

Kontu-sailaren guztizko gastua handiagoa da esleipenaren zenbatekoa baino, proiektuaren idazketa ere jasotzen duelako.

Egindako azterketan oinarrituta egiaztatu da bete egiten dela kontratuei buruzko legedia –alderdi nagusietan–, bai kontratazio-espedienteak izapidetzean, bai haiek esleitzean eta beteetzean, eta kontabilizatutako gastuak arrazoizkoak direla.

VI.9 AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2015eko ekitaldian aitortutako eskubideak 8,28 milioiokoak izan dira; ehuneko 99 eragiketa arruntengatiko diru-sarrerari dagozkien eta ehuneko 1, berriz, kapital-eragiketei.

Eragiketa arrunten artean tributuen bidezko diru-sarrerak (4,07 milioi eurokoak) eta transferentzia arruntak (4,05 milioi eurokoak) nabarmentzen dira, aurreko ekitaldian bezala.

Diru-sarreraren aurrekontuaren gauzatze-maila ehuneko 90ekoa izan da.

2014. urtearen aldean, aitortutako eskubideak ia ez dira aldatu.

Diru-sarreraren kapitulua	Aitortutako eskubide garbiak		Aldea (%)
	2014	2015	2015/2014
1. Zuzeneko zergak	3.064.923	2.877.208	-6
2. Zeharkako zergak	65.665	49.738	-24
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	893.120	1.148.847	29
4. Transferentzia arruntak	3.943.852	4.053.963	3
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	138.102	107.988	-22
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	8.105.662	8.237.744	2
6. Inbertsioen besterentzea			
7. Kapital-transferentziak	26.400	43.559	65
8. Finantza-aktiboak			
9. Finantza-pasiboak	105.000	0	-100
Kapitaleko diru-sarrerak eta finantza-eragiketak (6.etik 9.era)	131.400	43.559	-67
Diru-sarrerak, guztira	8.237.062	8.281.303	1

Zuzeneko zergen, tasen eta transferentzia arrunten bitartez lortutako diru-sarrerak nabarmentzen dira. Taulako datuetatik ondorioztatzen denez, zergen eta ondarearen bidezko diru-sarrerak behera egin dute; tasenak transferentzienak, berriz, gora egin dute, eta zorpetzea ez da handitu.

Ondorengo taulan udal-zerga bakoitzak aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da:

Diru-sarreraren kapitulua	Aitortutako eskubideak		Aldea (%)
	2014	2015	2015/2014
Lurraren kontribuzioa	1.689.104	1.724.346	2
Ibilgailuak	511.468	511.302	0
Lurren balio-gehikuntza	669.176	443.948	-34
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	195.175	197.612	1
EIOZa	65.665	49.738	-24
Guztira	3.130.588	2.926.946	-1

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, behera egin dute bai lurren balio-gehikuntza, bai EIOZa.

Udalak aplikatutako tasak hurrengo taulan ikus daitezke:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,3358	0,10-0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1-1,4	1-1,4
Lurren balio-gehikuntza		
Gaurkotzearen koefizientea	3,3-3,1	2,1-3,6
Zerga-tasa	14	8-20
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	5	2-5

Diru-sarrereren aurrekontu bateratuko kontu-sailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, oro har egoki izapidetu eta kontabilizatu direla egiaztatu dugu.

IV.10. HIRIGINTZA

Atarrabiako Udalak ez du organo berezirik edo erakunde instrumentalik osatu hirigintzaren kudeaketarako. Administrazio-zerbitzu orokorren bitartez kudeatzen da.

Alor horretan laguntzeko, Udalak arkitekto baten, ingurumen-aholkularitza baten eta ingeniari baten zerbitzu profesionalak ditu kontratatuta, honako gastu hauekin: 13.917, 11.142 eta 12.824 euro, hurrenez hurren. Gastu horietako batzuk ibaiaren uhaldiek eragindako uholdeetatik heldu diren lanak eta peritu-tasazio bat izan dira. 37.883 euro egiten du guztira.

Atarrabiako Udalaren Antolamendu Plana 1996an onetsi zen. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea ezarri zuen –2006ko apirilera bitartekoa– indarrean zeuden planeamenduak homologatzeko eta moldatzeko. Udalak, gaur arte, izapideak hasi ditu Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legean ezarritakora egokitzeko, plan orokor berri bat egiteari dagokionez. Plan hori hasiera batez onetsi da 2015eko maiatzaren 14an. 2015eko abenduaren 31n, idazketa-taldea txosten bat egiten ari zen hasierako onespena dela-eta aurkeztutako alegazioei buruz; horretarako epea 2015ko urriaren 31n amaitzen zen.

Ganbera honek nabarmendu nahi du luze jotzen ari dela hirigintza-planeamendu berria taxutu eta onesteko prozesua, nahiz eta tresna hori funtsezkoa izan udal plangintza eta kudeaketa ego-kietarako.

Udalak ez dauka Lurzoruaren Udal Ondarearen ez inbentariarik ez erregistro berariazkorik ere.

Hona gomendatzen duguna:

- *Udalaren hirigintzako plan berri bat onartzea.*
- *Lurzoruaren Udal Ondarearen inbentarioa eta erregistroa sortzea, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Legean aurreikusten dena betez.*

IV.11 KIROL MARTIKET SL SOZIJETATEA

2015eko maiatzean, behin betiko onetsi zen Kirol Martiket 2015 SL enpresa sortzea, bai eta Udalaren kirol instalazioen kudeaketa eta kirol-jarduerak tokiko merkataritza-sozietate baten bitartez kudeatzeko modua ere. Enpresa 2015eko urriari hasi zen kirol instalazioak kudeatzen, behin ordura arte kudeaketaz arduratzen zen enpresa esleipendunarekiko errentamendu-kontratua amaituta.

Hona sozietatearen balantzea eta emaitzen kontua abenduaren 31n, Batzar Nagusiak 2016ko maiatzean onetsiak.

Galeren eta irabazien kontua 2015eko abenduaren 31n

Deskribapena	2015eko ekitaldia
1 Negozio-zifraren zenbateko garbia	267.807
4 miduretarako ekarpena	-10.108
6 Langile-gastuak	-142.460
7 Bestelako ustiatze-gastuak	-49.253
8 Ibilgetuaren amortizazioa	-198
11 Ibilgetua besterentzetik heldu diren narriadura eta emaitzak	148
A Ustiaketaren emaitzak	65.937
15 Kanbio-diferentziak.	-6
B Finantza-emaitza	65.931
C Zerga aurreko emaitza	65.931
17 Mozkinen gaineko zerga	-11.373
Ekitaldiko emaitzak	54.558

Egoera-balantzea 2015eko abenduaren 31n

Aktiboa

Deskribapena	2015eko ekitaldia
Ibilgetu materiala	593
Aktibo ez-korrontea, guztira	593
Zordunak	65.298
Epe laburreko ekintzak	13
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	15.964
Aktibo korrontea, guztira	81.275
Aktiboa, guztira	81.868

Pasiboa

Deskribapena	2015eko ekitaldia
Kapital soziala	3.300
Galerak eta irabaziak, 2015-12-31n	54.558
Ondare garbia, guztira	57.858
Beste finantza-pasibo batzuk	-21.202
Zerbitzu-ematearen ondoriozko hartzekodunak	9.589
Zerga korrontearen pasiboak.	11.373
Administrazio Publikoekiko beste zor batzuk	22.219
Epe laburreko ekintzak	2.043
Langileak	-13
Pasibo ez-korrontea, guztira	24.010
Pasiboa, guztira	81.868

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria,
Asunción Olaechea Estanga